



***Euskal Autonomia Erkidegoko
Esku-hartze Sozialaren eremuan
Hirugarren Sektoreko jarduerak
sustatzeko diru-laguntza deialdian
hautemandako Praktika Onen Gida.
2011. urtea.***



2010ean Eusko Jaurlaritzak esku-hartze sozialerako diru-laguntza lerroen berrantolaketa abiatu zuen. Neurri horren helburuak, besteak beste, ordura arte zegoen zatiketa saihestea zen, zatiketa horrek erakundeek proiektuak era bateratuan eta eskabide bakarrean aurkeztea zailtzen zuelako; eta beste berrikuntza batzuk garatzea (tramitazio telematikoa, zuri-kontuak, etab).

2011ko Praktika Onen Gida labur hau aurtan bigarren urtez aurkezten dizuegu entitateei gizarte esku-hartzerako proiektuetan hobetzera laguntzeko tresna moduan.

Euskal Autonomia Erkidegoan esku-hartze Sozialaren eremuan Hirugarren Sektoreko jarduerak sustatzeko diseinatutako **22 proiektu** aukeratu dira, 2011ko diru-laguntza deialdiko emaitzen arabera.

2011an aurkeztutako 943 proiektuetatik, 404 izan dira diru-laguntza jaso dutenak (guztiaren %43), honela banatuta:

- 1. lerroa:** pertsona, familia, talde eta komunitateekin gizarte esku-hartzerakoak: 240 proiektu.
- 2. lerroa:** Gizarte esku-hartzerako Boluntarioen Ekintza eta Elkartegintza indartzekoak: 88 proiektu.
- 3. lerroa:** Gizarte esku-hartzerako Ezagutzaren Kudeaketa sustatzekoak: 76 proiektu.

Gida honetarako aukeratutako proiektuak bereziki osotu eta orekatuak dira eta ezaugarri hauek dituzte:

- Izaera integrala dute.
- Goi mailako irismena, bai kopuruz bai irisgarritasunez, hainbat arazo sozial metatuta dituzten kolektiboak.
- Goi mailako ebaluagarritasuna eta trazabilitatea.
- Barne-koherentzia handia.



EAEko esku-hartze sozialaren eremuan Hirugarren Sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzen hurrengo deialdian parte hartzeko asmoa duten gizarte erakundeei hobekuntza **ideia eta bitartekoak eskaintzea da Gida honen helburua.**

Hortaz, proiektuaren kalitate-item orokorrez gain (Gida honetan sartzeko ezinbestekotzat jo direnak) **beste alderdi zehatzago batzuk ere kontuan hartu dira**, esate baterako:

1. **Gizarte berrikuntza.**
2. **Ingurumenaren gaia zeharlerro** bezala txertatzea.
3. **Genero-ikuspuntua zeharlerro** bezala txertatzea.
4. **Lurraldez gaindiko** lan eraginkor eta koordinatua.
5. **Sektore-arteko zeharkako guneak** sortzea (hala nola **soziosanitarioak, soziokulturalak, soziohezitzaileak, etab.**)



Ondorengo orrietan praktika ontzat jo den proiektu bakoitzeko fitxa bat aurkeztuko da, dagokien diru-laguntzen lerroaren arabera sailkatuta. Fitxek praktika onen ezaugarri zehatzak jasotzen dituzte, **beste gizarte-erakunde batzuek euren lana aztertu eta alderdi horien gainean hausnartzeko aukera izan dezaten, ondoren euren egoerara egokitu eta etengabeko hobekuntza-prozesuak garatu ahal izateko**, beste erakunde batzuek abiatutako esperientzietatik ikasitakoa aprobetxatuz.



I. LERROA: Gizarte Esku-hartzea Familia, Talde eta Komunitateekin (1/2)

1. **EMAUS FUNDACIÓN SOCIAL.** Bizitza autonomorako gaitasuna eskuratzeko eta trantsiziorako trebatzeko *BIDE* programa.
2. **FUNDACIÓN PEÑASCAL.** Gizarteratze Zerbitzua
3. **LANBERRI ELKARTEA.** Lan-munduan txertatzeko gizarte eta heziketa laguntzarako *Ibiltzeko* Programa
4. **ZUBIETXE ELKARTEA.** Gizarteratzeko *Hazkuntza* eguneko zentroa.
5. **ARABAKO HIES-aren KONTRAKO BATZORDEA.** *Nahikari* proiektua: Prostituzioan diharduten pertsonen arreta integrala.
6. **FEDEAFES.** Gaixo psikikoentzat eta euren senideentzat lege-aholkularitza zerbitzua
7. **SARTU FEDERAZIOA.** Gizarteratzeko heziketa-tailerren sarea.
8. **ASAFES.** Lagundutako laneratzea- PILA
9. **FUNDACION INTEGRANDO.** Gizarteratzeko eta laneratze laguntza-plana
10. **MUNDUKO MEDIKUAK.** Bazterketa-arriskuan edo egoeran dauden etorkinen gizarte eta osasun integratze programak
11. **ALZHEIMERDUN GAIXOEN SENITARTEKOEN ELKARTEEN EUSKADIKO FEDERAZIOA.** Alzheimerrak edo bestelako demenziek eragindakoentzat arreta integrala.





I. LERROA: Gizarte Esku-hartzea Familia, Talde eta Komunitateekin (2/2)

- 12. FEVAS, ADIMEN EZINTASUNA DUTENEN ALDEKO ELKARTEEN FEDERAZIOA** Familien babeserako zerbitzua: familia-oreka ahalbidetzeko jarduerak
- 13. EGOILIAR AFRO-AMERIKARREN "AFRO" ELKARTEA.** Gizarte-bazterketarako arriskuan dauden atzerriko emakume etorkinak aldi baterako artatzeko "Amaia" proiektua
- 14. ADRA FUNDAZIOA.** Etorkinen gizarteratzerako arreta, laguntza eta prestakuntza
- 15. BIZKAIKO HIES-aren KONTRAKO BATZORDEA.** Gizarte esku-hartzea, genero ikuspegitik, bazterketa egoeran dauden kolektiboekin (drogen erabiltzaileak, etorkinak eta prostituzioan diharduten pertsonak)
- 16. T4 ELKARTEA.** GIB duten pertsonen autoerrealizazioa eta afektu positiboa sustatzeko taldekako esku-hartzea





II. LERROA: Gizarte esku-hartzerako Boluntarioen Ekintza eta Elkartegintza indartzea

17. **JASOTAKO BURMUINEKO KALTEEN ELKARTEEN EUSKADIKO FEDERAZIOA - FEATECE.** Federazioa indartzeko koordinazio-programa
18. **GIZAKIA FUNDAZIOA.** Gizakia Fundazioaren jarduera esparruetan esku-hartzeko boluntarioen sustapena
19. **FEVAS.** %100 FEVAS, 2011ko Prestakuntzan

III. LERROA: Gizarte esku-hartzerako Ezagutzaren Kudeaketa

20. **IKUSBIDE ELKARTEA.** XV. Urteroko Kogresua: Politikak eta Gizarte Zerbitzuak
21. **REAS EUSKADI.** Euskadiko Ekonomia Sozialaren Behatokia. EKOSOL.
22. **EDEX.** Gizarte esku-hartzerako Ahalduntzea 2.0





PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

EMAUS 1980. urtetik ari da lanean eta 1994an **Fundazioa eta Kooperatiba** irekitzea erabi zuen, esparru soziala eta hondakinen kudeaketarako enpresa-esparrua zabalduz, gizarte bazterketa egoeran zein arrisku larrian dauden pertsona eta kolektiboen bitzita kondizioak hobetzeko. Halaber, **laneratze eta gizarteratze prozesuak** lagundu, eta **gizartea sentsibilizatzea** nahi du justizia, pobrezia eta garapen arazoan arrazoiak, inplikazioak eta konponbideen inguruan.

BIDE Programak bitzita autonomorako trebatu eta gaitzeko baliabide integralak jartzen ditu Bizkaian eta Gipuzkoan bazterketa egoeran edo arrisku larrian dauden pertsonen esku, laneratze eta gizarteratzerako ibilbide pertsonalizatuetan oinarrituta.

PRAKTIKA ONAK

Sarean lan egiteko tresnak garatzea.

Emaus Internacional eta REASeo kide da (Ekonomia Solidarioarako Sarea) eta Euskal Herriko Gizarteratze Enpresen Elkartekoa (Gizatea).

Proiektuaren ebaluazio eta segimenduaren adierazleak. Informazio-bilketa eta azterketa errazteko eta sistematizatzeko aplikatibo informatikoa duen ebaluazio-metodologia bat eta Kalitate sail bat daukate.

Ingurumen-jasangarritasunerako gaiak proiektuan barne hartzea. Materialak berrerabiltzeko tailerrak, baratz ekologikoa eta murrizketa energetikoa (Ekoskan-en ziurtagiriarekin).

Proiektuaren lurraldez gaidiko garapena.

Jarduerak Bizkaia eta Gipuzkoan egiten dira, zenbait arabarren parte-hartzearekin.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

1986an lantegi bezala abiatu zenetik eta 1993an Fundazio moduan eratu arte, Peñascalek **baztertze-egoeran dauden gazteen gizarteratzearen eta lan-munduratzearen** alde beharra egin du, gazte horiek gaitasun profesionala eta euren inguruarekiko jarrera arduratsu, solidario eta integratua gara dezaten.

Gizarteratze-zerbitzua era integralean jorratzen da, lana, gizarteratzea eta osasuna uztartuz, eta ekimen horren hartzaileak epe luzean lanik gabe egon diren gazteak, baliabiderik ez duten atzerritarrak eta, zenbait kasutan, familia-zamak dituztenak dira.

Gabeziak identifikatu eta banakako laguntasuna eskaintzen zaie, **prestakuntza-ekimenen** bitartez (arautua eta ez arautua) **eta gizarteratzeko eta laneratzeko ekimenen** bidez, batez ere, etorkinen kasuan.

PRAKTIKA ONAK

Erakundeen arteko koordinaziorako sistemak.

Lanbideren erakunde kolaboratzailea da eta etorkinen premiei erantzuteko dauden gizarteratzeak eta gainerako erakunde eta baliabideak etorkinen artean ezagutaraztea bultzatzen du.

Proiektua lurraldez gaindiko koordinazio-arekin egiten da.

Bere jarduna Bizkaian Bilbon, Markinan eta Muskizen garatzen du, eta Gipuzkoan, Tolosan.

Atal guztietan genero ikuspuntua txertatuta dauka.

Genero ikuspuntua gizarteratze-ibilbideetan era sistematikoan txertatuta dago, eta baita berriazko ekimenen bidez ere: pobrezia eta desabantaila egoera larriena bizi duten emakumeengana iristea bilatzen da eta "Heziketa afektibo-sexualerako tailerrak" egiten dira.

3. LANBERRI ELKARTEA

<http://www.lanberri.org/>

Lan-munduan txertatzeko gizarte eta heziketa laguntzarako *Ibiltzeko* Programa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Lanberri Elkarteak 2000. urtean sortu zen Bilboko V. Barrutian (Bilbo Zaharra barne hartzen duena) eta egoera oso kalteberan dauden pertsonekin gizarte lanean ari diren lau erakunderen komunitate-lana batzen du.

Ibiltzeko izeneko **programak** gizarte eta hezkuntza laguntasuna eskaintzen ditu orientabidea eta laneratzea errazte aldera.

Bilboko V. Barrutian gizarte-zailtasunak dituzten 500 pertsona ingururi eskaintzen die zerbitzua, horietatik % 40 emakumezkoak, etxebizitza izateko, eta osasun-zerbitzuetara eta hezkuntzara iristeko aukera izan dezaten.

Horretarako gizarte-lanetan eta pedagogian eta abarretan trebatutako 8 pertsonen osatutako lantaldea dute eta inguruko beste gizarte-erakunde batzuekin koordinatuta egiten dute lan.

PRAKTIKA ONAK

Kalitatea Kudeaketan. Lanberriek Premie Kalitate-ziruitagiria dauka eta Aukera Berdintasunerako plana ere badu. Barne-ikuskapenak egiten ditu, Innobasqueko kide da eta REAS (Ekonomia Alternatibo eta Solidariorako Sarea) eta Kooperaren barruan dago.

Komunitate garapena. Bere jarduna komunitate-lanean ari diren beste lau erakunderekin koordinazioan garatzen du: Bidegintza, Susterra, Rezikleta eta Sortarazi. Bestalde, Bilboko V. Barrutian ari da lanean, Bilbo Zaharra, Sanfrantzisko eta Zabala barne (bereziki kaltetutako inguruak), eta 500 pertsonatik gorari eskaintzen die arreta.

Izaera integrala eta banan banako metodologia. Laneko prestakuntzarako programa da, orientazioan eta laneratzean oinarrituta eta gizarte-heziketarako esparrua ere jorratzen duena, banan banako ibilbideen lanketaren bidez.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

1993 eratutako elkartea dugu, eta baztertzearriskuan dauden pertsonen gizarteratzeko programak garatzen ditu, honako esparru hauetan: autonomia, gizarteratzea, immigrazioa, laguntasuna eta babesa. Bilboko Peña eta Abusu auzoetan eta Ollarganen (Arrigorriaga) ari da lanean; toki horietan ez dago era horretako bestelako baliabiderik.

Hazkuntza eguneko zentroak parte-hartzaileen premiak asetzen ditu era konbinatuan **maila asistentzian eta gizarte-heziketa arloan** (orientazioa zein gizarte-etxebizitza, osasun eta lege aholkurako zerbitzuetara bideratzea) eta Aisialdirako eskaintza zabala dute. Ondorioz, zerbitzu malgua eskaintzen dute, erabiltzaileen premietara egokituta.

Genero ikuspuntua proiektuaren fase guztietan zehar lerro bezala jasota dute: parte-hartzaileen hautaketa, edukien diseinua, jarduerak gauzatzerakoak, etab.

PRAKTIKA ONAK

Aukera Berdintasunarekin konpromisoa. Aukera berdintasunerako Entitate Kolaboratzailea da 2010etik. Generoa lantzeko webgune parte-hartzailea du www.igualitos.org eta berariazko prestakuntza eskaintzen du.

Proiektua garatu, koordinatu eta zabaltzeko IKTak erabiltzen ditu. Zentroaren kudeaketarako Web-bidez sartzeko tresna dute, PHP hizkuntzan.

Elkartasunerako komunitate sareak bultzatzen ditu. Auzokideek antolatutako ekintzak (ludikoak, politikoak, sozialak) zentroaren egoitzan gauzatzen dituzte eta boluntario-sare bat eta praktikan dauden ikasleak ere badituzte; bestalde, baliabide normalizatuak dituzten parte-hartzaileen lotura indartzea bultzatzen dute.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Arabako HIESaren Kontrako Batzordea 1987an sortu zen eta ibilbide luzea dauka **pertsonen babes emateko programetan** eta titulartasun publikoa duten zerbitzuen kudeaketan. 20 proiektutik gora garatzen ditu eta **hiritarren parte-hartzearen** aldeko filosofia bultzatzen du; 29 boluntario ditu. *Sendotu Sarearen* barruan dago, emakumeekin lan egiten duten Arabako erakunde publiko, pribatu eta elkarteek osatua.

Nahikari Proiektuak Vitoria-Gasteiz eta Araban **prostituzioan diharduten pertsonen arreta integrala eskaintzen die**, jendea bereganatzeko kale-lanean oinarrituta; banakako, taldeko eta komunitate-mailako esku-hartzeak egiten ditu prostituzioan ari direnen premiak antzemateko asmoz: gizarte, prestakuntza, lan eta osasun baliabideen inguruko informazioa eta aholkua.

PRAKTIKA ONAK

Komunitate-garapenerako osagaiak uztartzen ditu. Baliabide gutxiko inguruetan garatzen du bere lana, hala nola Gasteizko Alde Zaharrean eta prostituzioan jarduten duten industriguneetako kale eta biribilguneetan; gizarte eta osasun zerbitzuekin koordinazioa darama (pisu, klub eta kaleetara irteerak) eta osasun-eragile bat dute.

Jarduera era koordinatuan garatzen du. *Sendotu Sareak* kolektiboaren koordinazio, bideratze eta esku-hartzerako oinarriak ezartzea ahalbidetzen du eta babes sozial eta normalizaziorako giltzarria da.

Proiektuaren irismena. Erakundeetako programetatik iristerik ez dagoen eta arazo sozial metatuak dituzten 300 emakume inguruko kolektiboarekin lanean ari dira.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

FEDEAFES gaixo psikikoak eta euren senideen Elkarten Federazioa da. 1987 eratu zen eta ASAFES, AVIFES, ASASAM eta AGIFES-ek osatzen dute.

Era askotako ekimenak garatzen ditu, batez ere informazio eta sentsibilizazio arloan, eta deialdi honetan aurkeztutako lege aholkularitzarako proiektua ere kudeatzen dute.

Proiektu horrek gaixotasun psikikoak dutenen familien **bazterketa saihestu** nahi du, arlo zibil, penal eta laboralean.

2011n 1.029 kontsulta erantzun zituen (419 aurrez aurreko kontsulta eta 610, telefono bidezkoak), 143 gairen jarraipena egin zuen eta profesionalen 120 kontsulta argitu zituen.

PRAKTIKA ONAK

Izaera integrala eta banan banako metodologia.

Proiektuak zuzeneko lotura dauka erakunde barruko eta erakundea osatzen duten gainerako elkarten ekimenekin. Halaber, kasu bakoitza banan bana hartzen du, eta baliabideak (legezkoak, teknikoak eta administratiboak) koordinatzen ditu; hortaz, sektore-arteko guneak sortzen ditu (esparru soziojuridikoa).

Berrikuntza. Estatu osoan zerbitzu aitzindaria da, beste esparru geografikoetako erakundeek ere praktika ontzat jo dutena, hirugarren sektorea eta erakunde publikoak koordinatzea lortu duen heinean (fiskaltza, tutoretza, etab).

Lurraldez gaindiko lana. Proiektuak EAE osoari ematen dio zerbitzua. Horretarako, egoitza txandaturaz joaten da, eta asteko egun bakoitzean leku baten eskaintzen dute arreta.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Sartu Federazioak irabazi asmorik gabeko lau elkarte pribatu ditu bere barne (Sartu Álava, Erroak, Zabaltzen eta Gaztaroa) eta 20 urtetik gora daramatza gizarte-zerbitzuen esparruan lanean.

Bere **misioa** pertsonen gizarteratzea da, horretarako beharrezko diren aldaketak sustatuz, bai eskatzaileengan bai gizartean, komunitate integratzaileak eraiki ahal izateko.

Proiektua lan eta prestakuntza esparruez arduratzen da eta enplegua bilatzeko laguntza eskaintzen du. Laguntza hori garapen pertsonala, heldutasun soziala eta pertsonen autonomia ahalbidetzeko bide bezala hartzen da.

PRAKTIKA ONAK

Kalitatea Kudeaketan. Federazioa osatzen duten lau erakundeek EFQM ereduaren oinarritutako kalitate-plana dute. Erroak elkarteak kalitatearen zilarrezko Q jaso du. Halaber, II Plan Estrategikoa definitzen ari dira, 2015. urtera bitartekoa izango dena.

Aukera Berdintasuna. *Sartuk* badu 2007tik Emankunderen entitate kolaboratzaile izatearen aintzatespena emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren arloan, eta urte beretik erakundeak bere Aukera Berdintasunerako plana dauka. Bestetik, proiektu barruan tokien % 60 gutxienez emakumeentzat gordetzen dira.

Proiektuaren irismena. Proiektua populazio talde handi batera zuzenduta dago, gizarte arazo metatuak dituen bere gain (drogak, gartzela-aldiak, ezintasun fisikoa, familia-zamak, epe luzeko langanbezia, etab.)



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

ASAFES Gaixotasun Psikikoa duten pertsonen eta familien Arabako elkartea da. 1976an eratua, gaixo psikikoentzat bizitza proiektu bideragarri, integral eta berariazkoa egin nahi du, etorkizunera begirakoa eta integrazio eta normalizazioa xede dituena. Halaber, bizi-kalitatea hobetu nahi du, pertsona bakoitzaren gaitasunak sustatuz.

PILA proiektua gaixotasun mentala duten pertsonak lanaren bidez gizarteratzera bideratuta dago, eta hain zuzen ere **Lagundutako Lanaren** bidez: gaixotasun mentala duten pertsonen lana enpresa arruntetan topatzeko laguntza eskaintzea eta lanpostu horiek mantendu eta bere egonkortasuna zaintzea.

PRAKTIKA ONAK

Sektore-arteko zeharkako guneak sortzea. Proiektua garatzean sektore-arteko zeharkako gune mistoak sortzen dira, hala nola soziolaborala (lanpostu normalizatuetera iristeko bitartekaritza, lagundutako enplegua...) eta gizartea eta hezkuntza uztartzen dituen (prestakuntzarako laguntza, gizarte eta norbanakoaren trebezien garapena, etab).

Berrikuntza. Proiektu aitzindaria da Estatu Espainiar osoan, eta abiatu zela 11 urte diren arren, EAEn dugun era honetako ekimen bakarra da.

Proiektuaren irismena. Gizarte-zailtasun metatuak dituen kolektiboari zuzendutako proiektua da, buruko gaixotasunari askotan ezintasun fisikoak, menpekotasun-arazoak, etorkina izatea, adin txikikoen edo nagusien ardura izatea, genero indarkeriaren biktima izatea, etab. batzen zaizkiolako.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Fundación Integrando 2002an eratu zen Getxon (Bizkaia) eta gizarte bazterketarako arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea dauka helburu.

Horretarako **ekimen soziolaboralak eta laneratzeko-enpresak** erabiltzen ditu. REAS, Gizatea eta FIAREko kide dira. *Xertatu: Adi* metodologia erabiliz egiten dute lan: eta Premie Kalitate-ereduarekin.

Aurkeztu duten proiektua Portugalete, Sestao, Erandio, Mungia, Muskiz eta Zierbenan langabezian edo bazterketa arriskuan dauden 180 pertsonari zuzendutako **gizarteratze eta laneratzeko laguntasun-plana** da.

PRAKTIKA ONAK

Kalitatea Kudeaketan. Erakundeak Xertatu metodologia darabil lanerako: ADI, EFQM eredu jarraitzen dute, PREMIE ziurtagiria eta, UNE EN -ISO 14001 ingurumen-araua ere badituzte; halaber, 2012ra bitarteko plan estrategikoa eta 2009tik Berdintasun Plana dituzte.

Irismena. 180 pertsona, Nerbioi ibaiaren ezker-ibarreko udalerrri bakoitzeko 30 pertsonako taldeetan banatuta. Pertsona horiek kolektibo kalteberetako kide dira eta era askotako gabeziak dituzte: afektiboak, familiarak, kulturalak eta sustraitze-ezarenak.

Ebaluagarritasuna eta trazabilitatea. Banakako ibilbidea eta ibilbide partekatua diseinatu baino lehen enpleagarritasun diagnostikoa egiten da. Ondoren, inpaktuaren jarraipen-adierazleak ezartzen dira.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Munduko Medikuek elkartasunerako nazioarteko erakunde independentea da. Konpromiso boluntarioaren bitartez giza garapena sustatzen du, pertsona guztiek osasunerako eta bizitza duinerako duten eskubidea aldarrikatuz.

Munduko Medikuek Munduko Medikuen Nazioarteko Sareko kide da eta Sarearen zuzendaritza-egituretan era aktiboan parte hartzen du, sarea osatzen duten gainerako erakundeen ikuspegi, balio eta konpromisoekin bat eginez.

Aukeratutako proiektua bazterketa egoeran edo arriskuan dauden etorkinen **gizarteratze eta osasunaren integrazio**arako proiektua da.

PRAKTIKA ONAK

Kalitatea Kudeaketan. Erakundeak Fundación Lealtad-en ikuskapenak pasatzen ditu, Ekintza Plana eta Aukera Berdintasunerako plana ere badituzte, eta Plan Estrategikoa lantzen ari dira.

Ekonomia solidarioaren adierazleak. Finantzak BBK Solidarioarekin lantzen dituzte.

Erabiltzaileen parte-hartzea. Erabiltzaileek parte hartu dezaten eta jarduera zehatzak proposa ditzaten guneak eskaintzen ditu proiektuak. Jokabide horrek erabiltzaile horietako batzuk boluntario egonkor bezala jarraitzea ahalbidetu du, komunitatearekiko konpromisoak hartuz eta, aldi berean, parte-hartzaile berriak identifikatzen eta biltzen lagunduz.

Arazo sozial metatuak eta zeharkako guneak sortzea. Proiektua bazterketa egoeran edo arriskuan dauden etorkinen integrazio soziosanitarioarako programa da.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Alzheimerdun Gaixoen Senitartekoan Elkartearen Federazioa 1996 geroztik ari da lanean eta lurralde-mailako hiru elkarteek osatzen dute.

Bere **jarduerak** hauek dira: zabalkundea eta sentsibilizazioa, familiartekoen laguntza taldeak, familiartekoen prestakuntza, hasierako fasean dauden gaixoen artapena, arnasaldi programa, etxez etxeko fisioterapia, kalitate arloko prestakuntza federazioa bera hobetzeko, etab,

Proiektua **Alzheimer edo beste dementzia batekin diagnostikatutako pertsonen autonomia babestu eta sustatzeko jarduera globala da**. Helburua kaltetuak eta familiak komunitatean integratzea da, dependentzia-aldia saihestuta edo laburtuta eta horrekin beste helburu garrantzitsu bat lortuz, hala nola etxebizitza mantentzea ahal denik eta denbora gehienez.

PRAKTIKA ONAK

Irismena. Proiektuak 5.600 familia artatzen ditu EAEn, eta eragindakoen kopurua gero eta handiagoa da.

Genero ikuspuntua txertatuta izatea. Kasu gehienetan Alzheimerra duten pertsonen zaintza emakumeek egiten dutela kontuan izaten badugu, proiektu barruan gizonezkoek euren burua inplikatzeko premia konturatzeko hitzaldiak daude, gizonak zaintzaile moduan agertzean emakumeen kondizioak hobetzen direlako.

Lurraldez gaindikotasuna. Ekimena lurralde-mailako hiru elkartearen lan koordinatuarekin bideratzen da, eta EAE osoari ematen diote zerbitzua.

Sektore-arteko zeharkako guneak sortzea. Proiektu psikosoziala eta soziosanitarioa da.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Adimen Ezintasuna dutenen Euskal Federazioa (FEVAS) 80ko hamarkadatik ari da lanean.

EAE n ezintasun intelektualak duten pertsonen eta euren familiei arreta eskaintzen dien **elkartek** ordezkatzen ditu. Kide diren erakundeei zerbitzuak eskaintzen dizkie eta ekintzak koordinatzen ditu, kolektiboaren interesak eragiten dituzten gaietan jarduera-irizpideak bateratuz.

“**Familiari laguntza zerbitzua**” programak izaera integrala dauka, eskaintzen duten arreta hainbat programaren bidez egituratzen baita: harrera, informazioa, familiei orientazioa eta prestakuntza, babes psikologiko eta emozionala eta familia arnasaldia, larrialdietan zein programatutako ateraldietan.

PRAKTIKA ONAK

Berrikuntza. FEVASek kalitate arloan berrikuntza eta ikerketan (I+G+b) ari den langile bat dauka, proiektuen arduradunekin koordinatzen dena.

Lurraldez gaindikotasuna. Proiektua EAE osoan garatzen da, hiru lurralde historikoetako elkarteen bidez.

Proiektuaren ebaluazio eta jarraipenerako adierazleak. Adierazle kuantitatiboetan oinarritutako ebaluazio-plana dauka. Bestetik, familiek proiektua baloratzen dute asebetetze-inkesta baten bidez.

Genero ikuspegia txertatzea. Proiektua bereziki emakumeengatik eta emakumeentzat ari da lanean, horiek baitira familia barruan laguntza lanak egiten dituztenak gehienbat. Proiektuaren emaitzak emakumeen aukera sozial eta ekonomikoak zabaltzean isla daitezke.

AMAIA. Gizarte-bazterketarako arriskuan dauden atzerriko emakume etorkinak aldi baterako artatzeko proiektua



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

“Afro” Afroamerikarren Elkarte irabazi asmorik gabeko elkarte da eta **Arabian 1994tik** lanean ari da etorkinak gizarteratu, laneratu eta kulturari integrazteko.

Amaia Programaren helburua bazterketa arriskuan dauden emakume etorkinei aldi baterako harrera eskaintzea da. Emakume horiek ez dute euren baliabiderik ez eta lotarako leku duinik edo janaririk eskuratzeko babes sarerik, eta oinarrizko baldintzak betetzen ez dituztenez, ezin dira harrerarako udal gizarte zerbitzuez baliatu. 2011an Gasteizen pisu bitan egin da lan, bata Sansomendi auzoan, 2004an irekitakoa, eta bestea, Lakua auzoan, Eusko Jaurlaritzak 2009an utzitakoa.

PRAKTIKA ONAK

Gizarte zailtasun metatuak. Gizarte bazterketarako arriskuan dauden emakume etorkinei zuzenduta dago programa: familiaren babesik ez duten haurdunak, pertsonen trafikoak eragindakoak, emazte zapuztuak, prostituzioan dihardutenak, genero indarkeriaren biktimak, etab.

Beste eragile batzuen estaldurarik ez duen talde bati arreta ematea. Artatzen dituzten emakumeek ez dute euren baliabiderik ez eta lotarako leku duinik edo janaririk eskuratzeko babes sarerik. Horrez gain, ezin dira harrerarako udal gizarte zerbitzuez baliatu, ez dituztelako oinarrizko baldintzak betetzen.

Elkartasunerako komunitate-sareak sortzea. Programak harrera-pisuetan bizi diren emakumeen egoera normaltzea lortu du, bai auzokoan komunitateari bai auzo osoari dagokionean.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

ADRA, Garapen eta Laguntzarako Baliabideen Agentzia Adbentista

erakundearen sorrera 1980ko hamarkadan izan zen. Bere xedea pertsonen gaitasuna hobetzea da, pertsonak eurak dituzten premiak asetzeko gai izan daitezen. Garapen integralaren alde egiten dute lan, hezkuntza, osasuna, ekonomia eta demokrazia jorratuz.

Proiektua Gasteiz inguruko **bazterketa arriskuan dagoen populazio etorkinari** zuzenduta dago, eta bere helburua garapen pertsonalerako eta harrera-gizartean ondo txertatzeko informazioa eskaini eta hurbiltzea da. Lana banaka zein talde-mailan egiten da, pertsona bakoitzarentzat berriaz egindako ibilbideen bidez. Ibilbide hori gizarte-langileak eta onaradunak berak diseinatzen dute elkarlanean.

PRAKTIKA ONAK

Kalitatea Kudeaketan. Fundazioak 2010ean kalitate-plan bat abiatu zuen, EFQMren kalitate-ziurtagira eskuratzea ekarri ziena. Bestetik, 2011-2014rako Plan Estrategikoa onartuta daukate.

Genero ikuspuntua txertatzea. Prestakuntza jasotzen dutenen % 75 emakumeak izateari lehentasuna ematen zaio, eta ikastaroak goizez jartzeko ahalegina egiten da, emakumeak umeak eskolan dauden bitartean joan ahal izan daitezen, eta prestakuntzara joan ahal izateko umeentzat gune bat eskaintzen da.

Ingurumen ikuspuntua txertatzea. Prestakuntzak ingurumenari buruzko berriazko modulu bat jasotzen du.

Ebaluazioaren adierazleak. Proiektuak ebaluaziorako adierazleak ditu, jarraipena nola egingo den zehazteko eta betetze-maila jasotzeko.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

HIESaren Aurkako Bizkaiko Herritarren Batzordea 1986an sortu zen herri mugimenduaren ekimen boluntario eta aktibotik, GIB/HIESarekin lotutako arazoengatik inguruan sentsibilizazioaren ondorioz.

GIB/HIESaren kontrako borrokan esperientzia zabala eta ibilbide luzea dauka. Estatu espainiarrean **aintzindaria eta eskarmentu handiena** duenetarikoa da, adibidez, xeringak trukatzeko programarekin.

Proiektua gizarte esku-hartzerako programa da eta era integralean garatzen da, bazterketa arriskuan dauden pertsonen harrera, laguntasuna, jarraipena, babes psikologikoa eta prestakuntza eskaintzen baitizkie, gizarteratzeko banakako prozesuen bidez bizikaltatea hobetuz, eta osasun eta gizarte baliabideekin harremanetan jarriz.

PRAKTIKA ONAK

Genero ikuspuntua txertatzea. Prostituzioan diharduten emakumeentzat berariazko programa bat garatu dute, ahalduntze ekintzak jasotzen dituenak.

Sektore-arteko zeharkako guneak sortzea. Irismena eta Parte-hartzea. Programak hedapen handiko arreta soziosanitarioa eskaintzen du (lehenengoz joan diren 819tik, 455 gizonetakoak dira, 354 emakumeak eta 10 transexualak) eta gizarte arazoak metatuta dituzte (drogen kontsumoa, immigrazioa, prostituzioa, etab). Osasun-eragilearen figura ere badute, kasu askotan parte-hartzaileen artean sortutakoa.

Elkartasunerako komunitate-sareak sustatzea. Erakundeak komunitate osoarentzat irekita dauden doako GIB eta sifilis probak eskaintzen ditu.

Ekonomia solidarioa sustatzen dute. HIESaren aurkako Batzordeak Triodos Bank erabiltzen du.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

T4 Elkarte Bilbon 1992an GIB/HIESak eragindako pertsona talde batek sortutako irabazi asmorik gabeko erakundea da, kolektibo horren eskubideen defentsaren aldeko apustu argia eginez.

Programa honekin **2010ean taldeari zuzendutako esku-hartze ekimen bati jarraipena eman nahi zaio, osasuna babesteko eragile psikosozialak sustatzeko oso erabilgarri** agertu baita. GIBarekin bizi direnen norbanaren errealizazioa eta afektu positiboa bultzatzeko talde-interbentzioa proposatzen da, hortaz bizi-kalitatea hobetzeko. T4tik erabiltzaileen premiak asetu nahi dituzte eta taldekako esku-hartzea errepikatu nahi dute parte-hartzaileen kopurua eta espezializazioa handituta.

PRAKTIKA ONAK

Premien diagnostikoa eta alde zurreko ebaluaketa. Proiektuaren abiapuntua 2010ean egindako proiektu pilotutik ateratako datuak dira. Horien bidez era frogagarrian eta adierazle egiaztagarrien bidez modu horretako esku-hartzeak duen eragin positiboa argi agertzen zen.

Proiektuaren irismena eta gizarte-arazoak metatuta. 22 pertsona dira hartzaile (15 gizonezko eta 7 emakume), gizarte-bazterketarako arriskuan daudenak (batzuk, larrian), lanik gabe, GIBarekin (beste zenbait gaixotasunekin batera ere), lege aurrean arazoekin (espetxeratzeak barne), etab.

Ekonomia solidarioa sustatzen dute. T4k banku etiko/solidarioen bitartez kudeatzen ditu bere finantzak (Fiare eta BBK Solidarioarekin)

Genero ikuspuntua txertatzea. Proiektuan erabiltzen diren materialek (gidak, etab.) hizkuntza ez sexista erabiltzen dute, eta datuak sexuaren arabera aurkezten dira.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Jasotako Burmuineko Kalteen Elkarten Euskadiko Federazioa 1995 sortu zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan proiektuak era bateratuan bideratu eta gauatzeko asmoz.

2010ean federazioa osatzen duten **elkarten koordinazioa indartzen hasi** zen eta profesionalak prestatzeko proiektuak eta plataforma digital bat garatu ziren, besteak beste.

2011n indartze-proiektua sendotu zen , eta elkarteetako profesional eta bazkideen arteko komunikazioa errazteko estrategiak garatu ziren.

PRAKTIKA ONAK

Beste eragile batzuen estaldurarik ez duen talde bati arreta ematea. Federazioa osatzen duten hiru elkarteak dira Jasotako Burmuineko Kalteak dituzten gaixoak eta euren familartekoak laguntzeko dauden erakunde bakarrak.

Lurraldez gaindikotasuna. Proiektua EAE osoan gauzatzen da, eta bere xede nagusia Araba, Bizkaia y Gipuzkoako lurraldeetako elkarten lana koordinatzea da.

Erabiltzaileen parte-hartze aktiboa. Bai erabiltzaileek bai elkarteetako egitura barruko kideek era aktiboan hartzen dute parte proiektuaren eta lan-metodologiaren diseinuan.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Cáritas eta Bilboko Elizbarrutiak sortua 1985ean, **GIZAKIA Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakundea da**; onura publiko izendapena du eta gizarte-bazterketarako arriskuan dauden kolektiboetarako zuzendutako prebentzio, laguntza eta gizarteratzea eta laneratzea bultzatzeko programa eta ekintzak garatzen ditu.

Gizakia Fundazioak eredu biopsikosoziala lantzen du eta jasotzen dituen arreta eskaintzei erantzun integrala eta pertsonalizatua ematen saiatzen da.

Proiektuaren helburua Gizakia Fundazioan boluntarioen parte-hartzea sustatzea da, gizarte esku-hartze prozesuen premiak eta erakundera doazen boluntarioen espektatibak hobeto egokitzeko.

PRAKTIKA ONAK

Kalitatea kudeaketan. PREMIE ziurtagiria dauka 2007tik eta bere Plan Estrategikoa, 2009tik. Bestalde, Aukera Berdintasunerako lehen diagnostikoa egina eta plana landuta du, 2012ra arte indarrean egongo dena.

Berrikuntza. SPRIren Berrikuntza Agendak proiektuan parte hartzen du eta Innobasquen, EAPNren bidez.

Ingurumen ikuspuntua txertatzea. Ingurumena zaintzeko hainbat protokolo ditu eta Ekoscan ziurtagiria tramitatzen ari da.

Proiektuaren ebaluazio eta segimendurako adierazleak. Proiektu osoaren bilakaera jasotzeko adierazle kuantitatibo eta kualitatiboak definituta ditu.

Ekonomia solidarioa. Bere finantzak BBK Solidarioa eta Fiaren bidez kudeatzen ditu.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Adimen Ezintasuna dutenen Elkarteek Euskal Federazioa (**FEVAS**) 80ko hamarkadatik ari da lanean.

EAEn adimen ezintasuna duten pertsonen eta euren familiei zerbitzua ematen dien elkarteak ordezkatzeko dituzte. Kide diren erakundeei zerbitzuak eskaintzen dizkie eta ekintzak koordinatzen dituzte, kolektiboaren interesak eragiten dituzten gaietan jarduerarizpideak bateratuz.

FEVASen prestakuntza-proiektuak adimen ezintasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko esku-hartze eredu berriak bilatu eta aldatzen dituzte, eta pertsonen garapena sustatzen du esparru guztietan.

PRAKTIKA ONAK

Sektore-arteko zeharkako guneak sortzea. Proiektuak gizarte, hezkuntza eta osasun esparruak era bateratuan lantzen dituzte, ezintasuna duten pertsonen enplegu integralerako aukera emateko lan egiten duten profesionalen prestakuntza eskaintzen dien heinean.

Lurraldez gairako lana. Jarduerak Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako lurralde historikoetan garatzen dira; hortaz lanerako esparru komuna, eraginkorra eta koordinatua sortzen da EAE osoan.

Berrikuntza. Federazioak oso presentzia aktiboa dauka Web 2.0-n, bai euskarriari bai jarduerari dagokienez, eta profilak dauka Facebook, Twitter, Picassa, Youtube, Vimeo, eta abarretan, bere komunitatearekin eta gizarte osoarekin komunikazio aukera bermatuz.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Ikusbide Elkartea 1999an sortu zen, Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolari lotuta, gizarte ekintzarako ikerketa, dokumentazio eta prestakuntza zentro bezala.

Aurreko **15 urteetan** bezala, bere jarduna prestakuntza eta eztabaidarako gune egonkor moduan planteatzen da, gaur egun dauden foro instituzional, akademiko eta sozialen testuinguruan.

Zehazki, gizartearen sektore zabalei eragiten dien **gizarte-bazterketaren aurrean diagnostiko bat egin eta jarduteko proposamenak** jaso nahi dituzte.

PRAKTIKA ONAK

Proiektuak komunitate-elkartasunerako sareak sustatzen ditu. Helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuko eragile guztien elkartasun-sareen artean sinergiak sortzea da, ez bakarrik prestakuntzaren esparruan baizik eta ekintzaren alorrean ere.

Proiektuak boluntarioen lana txertatzen du. Proiektuaren % 80 boluntarioen lanarekin egiten da.

Lurraldez gaindiko lana. Kongresuan EAeko hiru lurraldeetako, Estatuko eta beste herri batzuetako parte-hartzaileak izan dira.

Parte hartu duten pertsonen kopuru handia. 300 pertsona bertaratu dira (eskabide gehiago egon da baina ez zegoen tokirik) eta askoz kopuru handiagoari zabaldu zaio ekimena bide elektronikoa erabiliz.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

REAS Euskadi 1997an sortutako sarea da eta pertsonen eta euren inguruaren zerbitzurako ekonomia sustatzen duten 40 enpresa eta gizarte erakundetik gora batzen ditu.

Enpresa solidarioen sarea bultzatzen du eta ikuskapen sozialerako eta kalitatea hobetzeko tresnak erabiltzen ditu. Horrez gain, kontsumo arduratsua eta merkataritza ekologikoa eta bidezkoa sustatzen ditu. Halaber, finantza baliabide etiko eta solidarioen garapena bultzatzen du.

Ekosol, Euskadiko Ekonomia Sozialaren Behatokiaren helburua hirugarren sektoreko erakundeak indartzea da, sistematizazioaren bidez eta materialak eta dokumentazioa sortuz eta ondoren ezagutzera emanez.

PRAKTIKA ONAK

Irismena. Ekosolek 53 gizarte-eraunderen lanari babes eman nahi dio. Horietan 1.200 langiletik gora daude, eta ia 2.800 boluntario.

Lurraldez gaindikoa. Behatokiak ekonomia sozialarekin zerikusia duten hirugarren sektoreko erakunde guztiei eskaintzen die bere zerbitzua, beraz, bere jarduera esparrua EAE osoa da.

Proiektuak erakundeen arteko koordinaziorako bideak ezartzen ditu. Ekosol Lan Ekintzaren Behatoki Sozio-ekonomikoarekin koordinatuta dago eta, unibertsitate arloan, Lan Harremanen Unibertsitate Eskolaren lankidetzan da. Halaber, Ekonomia Sozialaren Euskal Behatokiarena -Gezki Institutua-, EHUren Hegoa Institutuarena eta Deustuko Unibertsitatearen Etika Aplikatuaren Zentroarena.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

EDEX gizarte ekintzarako irabazi asmorik gabeko erakundea da, **1971**an Euskadin sortua. Bere helburua haurtzaroaren eta nerabezeroaren garapena sustatzea da, aisialdiko heziketaren bidez.

90eko hamarkadatik aurrera, EDEXek bere lanaren atal nagusia zailtasunak dituzten **adin txikikoentzat eta euren familientzat gizarteratze eta heziketarako esku-hartze programak diseinatu eta garatzea** da. Halaber, drogamenpekotasunei arreta eskaintzea, prebentzioan indarra jarriz. Aldi berean, gainerako gizarte eragileentzat materialak diseinatu, argitaratu eta banatzean espezializatuta dago.

Proiektuak **Bizitzarako Trebetasunetan** hezteko **web atari** bat dauka; bertan garapen pertsonal eta sozialerako hamar trebetasun psikosozial proposatzen dira.

PRAKTIKA ONAK

Irismena. *habilidadesparalavida.com* atariak urtean 100.000 bisitatik gora jasotzen ditu. Ekintza aukera zabala eskaintzen du: mailing-ak, albistegiak, deskargak, blog bat, etab.

Lurraldez gaindikoa. Internet bidezko komunikabide bat denez, edozein tokitik sar daiteke, beraz, EAEko Lurralde Historikoko biztanle guztiei informazioa helarazteko aukera eskaintzen du.

Erabiltzaileen parte-hartze aktiboa. Web-lanerako modulu bakoitzak edukiak barneratzeko eta parte-hartze aktiboa bideratzeko zenbait ataza betetzea eskatzen du. Ez da informaziorako webgune soila, baizik eta interakzioa ahalbidetzen duena.



***Euskal Autonomia Erkidegoko Esku-
hartze Sozialaren eremuan Hirugarren
Sektoreko jarduerak sustatzeko diru-
laguntza deialdian hautemandako
Praktika Onen Gida. 2011. urtea.***

